



***SERVICIOS FUNERARIOS DE DONOSTIA-SAN
SEBASTIÁN, S.A.***

***2024KO ABENDUAREN 31KO URTEKO KONTU LABURTUAK,
IKUSKAPEN TXOSTENAREKIN BATERA***

***CUENTAS ANUALES ABREVIADAS AL 31 DE DICIEMBRE
DE 2024 JUNTO CON EL INFORME DE AUDITORÍA***



***SERVICIOS FUNERARIOS DE DONOSTIA-SAN
SEBASTIÁN, S.A.***

***2024KO ABENDUAREN 31KO URTEKO
KONTU LABURTUEN IKUSKAPEN TXOSTENA***

***INFORME DE AUDITORÍA DE LAS CUENTAS ANUALES
ABREVIADAS AL 31 DE DICIEMBRE DE 2024***



AUDITORE INDEPENDENTE BATEK EGINDAKO
URTEKO KONTU LABURTUEN IKUSKARITZA-
TXOSTENA

SERVICIOS FUNERARIOS DE DONOSTIA-SAN
SEBASTIÁN, S.A. Sozietatearen akziodun bakarrari,
Donostiako Udaleko Kontuhartzaitzaren aginduz:

Iritzia

SERVICIOS FUNERARIOS DE DONOSTIA-SAN
SEBASTIÁN, S.A.ren (Sozietatea), urteko kontu
laburtuak ikuskatu ditugu. Urteko kontu laburtu hauek,
2024ko abenduaren 31ko balantze laburtuak, eta
aipatutako datan bukatutako ekitaldiari dagozkion galdu-
irabazien kontu laburtuak eta memoria laburtuak osatzen
dituzte.

Gure iritziz, erantsitako urteko kontu laburtuek, alderdi
esanguratsu guztietan, Sozietateak 2024ko abenduaren
31n zuen ondarearen eta finantza-egoeraren irudi fidela
adierazten dute, eta baita aipatutako datan bukatutako
ekitaldiari dagozkion emaitzena ere, aplikagarria zaion
finantza-informazioaren araudi-esparruarekin bat etorritz
(memoria laburtuaren 2 oharrean adierazten dena), eta
bereziki, jasotako kontabilitate-printzipio eta arauekin bat
etorritz.

Iritzia emateko oinarria

Ikuskaritza lana, Espainian indarrean dagoen kontu-
ikuskaritza jardura erregulatzen duen araudiarekin bat
etorritz egin dugu. Arau horien arabera ditugun
erantzunkizunak, aurrerago deskribatzen dira *Urteko
kontu laburtuen ikuskaritzaren inguruan, auditorearen
erantzukizunak* atalean.

INFORME DE AUDITORÍA DE CUENTAS ANUALES
ABREVIADAS EMITIDO POR UN AUDITOR
INDEPENDIENTE

Al Accionista Unico de SERVICIOS FUNERARIOS DE
DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN, S.A. por encargo de la
Intervención del Ayuntamiento de San Sebastián:

Opinión

Hemos auditado las cuentas anuales abreviadas de
SERVICIOS FUNERARIOS DE DONOSTIA-SAN
SEBASTIÁN, S.A. (la Sociedad), que comprenden el
balance abreviado a 31 de diciembre de 2024, la cuenta de
pérdidas y ganancias abreviadas y la memoria abreviada
correspondientes al ejercicio terminado en dicha fecha.

En nuestra opinión, las cuentas anuales abreviadas
adjuntas expresan, en todos los aspectos significativos, la
imagen fiel del patrimonio y de la situación financiera de
la Sociedad a 31 de diciembre de 2024, así como de sus
resultados correspondientes al ejercicio terminado en dicha
fecha, de conformidad con el marco normativo de
información financiera que resulta de aplicación (que se
identifica en la nota 2 de la memoria abreviada) y, en
particular, con los principios y criterios contables
contenidos en el mismo.

Fundamento de la opinión

Hemos llevado a cabo nuestra auditoría de conformidad
con la normativa reguladora de la actividad de auditoría de
cuentas vigente en España. Nuestras responsabilidades de
acuerdo con dichas normas se describen más adelante en la
sección *Responsabilidades del auditor en relación con la
auditoría de las cuentas anuales abreviadas* de nuestro
informe.



Sozietatearengandik independenteak gara, Espainiako urteko kontuen ikuskaritzan jarraitu beharreko etika eskakizunen arabera (independentzia eskakizuna barne), kontu-ikuskaritzak arautzen dituen araudian xedatutakoarekin bat. Zentzu horretan, ez dugu kontuen ikuskaritza ez den beste zerbitzurik eman, eta ez da gertatu aipatutako araudi-erregulatzailaren arabera ezinbestekoa den independentzia arriskuan jarri zezakeen inolako egoerarik.

Lortu dugun ikuskaritza-ebidentziarekin, iritzia emateko oinarri nahikoa eta egokia dugula uste dugu.

Ikuskaritzaren alderdirik garrantzitsuenak

Ikuskaritzaren alderdirik garrantzitsuenak, gure iritzi profesionalaren arabera, epealdi honetako urteko kontuen ikuskaritzan hutsegite materialak egoteko arrisku esanguratsutzat hartutakoak izan dira. Arrisku hauek, urteko kontuen gure ikuskaritzaren testuinguruan eta horiei buruzko gure iritzia osatzeko hartu dira kontuan, eta ez dugu arrisku hauei buruzko iritzi berezirik ematen.

Pasibo korrentearen eta ez-korrentearen periodifikazioak

Sozietateak, hileta-eskubideengatiko tituluekin lotutako kontratuetatik eratorritako diru-sarrera aurreratuak, balantze laburtuko pasiboaren epe luzeko eta laburreko periodifikazioak epigrafeetan onartu egiten ditu 2024ko abenduaren 31n. Horien bidez, panteoien erabilera lagatzen da 25 eta 75 urte bitarteko aldietan, ekitaldi bakoitzeko diru-sarrerak, aipatutako kontratuen indarraldiaren arabera egozten direlarik.

Somos independientes de la Sociedad de conformidad con los requerimientos de ética, incluidos los de independencia, que son aplicables a nuestra auditoría de las cuentas anuales en España según lo exigido por la normativa reguladora de la actividad de auditoría de cuentas. En este sentido, no hemos prestado servicios distintos a los de la auditoría de cuentas ni han concurrido situaciones o circunstancias que, de acuerdo con lo establecido en la citada normativa reguladora, hayan afectado a la necesaria independencia de modo que se haya visto comprometida.

Consideramos que la evidencia de auditoría que hemos obtenido proporciona una base suficiente y adecuada para nuestra opinión.

Aspectos más relevantes de la auditoría

Los aspectos más relevantes de la auditoría son aquellos que, según nuestro juicio profesional, han sido considerados como los riesgos de incorrección material más significativos en nuestra auditoría de las cuentas anuales del periodo actual. Estos riesgos han sido tratados en el contexto de nuestra auditoría de las cuentas anuales en su conjunto, y en la formación de nuestra opinión sobre éstos, y no expresamos una opinión por separado sobre esos riesgos.

Periodificaciones de pasivo corriente y no corriente

La Sociedad reconoce los ingresos anticipados derivados de los contratos relacionados con los títulos por derechos funerarios, mediante los cuales se cede el uso de los panteones por periodos comprendidos entre 25 y 75 años, en los epígrafes de Periodificaciones a largo y corto plazo del pasivo del balance abreviado al 31 de diciembre de 2024, efectuándose la imputación a ingresos de cada ejercicio en función del plazo de vigencia de los contratos relacionados.



Formalizatutako kontratu kopuruaren garrantzia, horietako bakoitzean arautzen diren baldintza espezifikoak eta periodifikatu beharreko zenbatekoekin lotutako zenbatespenen konplexutasuna kontuan hartuta, arlo hori esanguratsua dela eta akats materialak izan ditzakeela erabaki dugu, bereziki ekitaldiaren itxieran, diru-sarreraren aldi baterako egozpenari dagokionez. Hori dela-eta, alderdi esanguratsutzat jo dugu geure ikuskaritza-lanean.

Gure ikuskaritza-prozedura nagusiek barne hartu zituzten, besteak beste, dagozkion erregistroak egiteko sozietateak erabilitako prozesuak ulertzea eta berrikustea, bai eta kontratu jakin batzuk hautatzea ere, erabilitako sistematika eta egindako kalkuluen arrazoizkotasuna behar bezala aplikatzen direla egiaztatzeko. Horrez gain, erantsitako memoria laburtuaren 9 oharrean aurkeztutako informazioaren egokitasuna ebaluatu dugu.

Kontu-ikuskaritza aldaketa

Hau izan da gure lehen urtea Sozietatearen ikuskaritzan, eta, beraz, ikuskaritza modu efektiboan planifikatu dugula bermatzeko, (i) bilera antolatu dugu aurreko ikuskatzailearekin, haren laneko dokumentuak berraztertzeko; (ii) Sozietatearen kontabilitate-politikak eta iazko finantza-egoerak ebaluatu ditugu; (iii) Sozietatearen zuzendaritzarekin bilera egin dugu, kontrolaren ingurunea eta haren prozesuak ulertu ditugula ziurtatzeko; eta (iv) aurreko ikuskatzailearen laneko dokumentuak berraztertuta, ikuskaritza-laneko gure lehen urtearen hasieran irekiera-saldoak zenbatekoak ziren jakin dugu. Ondoren, gure ikuskaritza planifikatu dugu, amaierako saldoak jakiteko, lan hori kontuan hartuta.

Dada la relevancia de la cantidad de contratos formalizados, las diversas condiciones específicas que se regulan en cada uno de ellos y la complejidad de las estimaciones relacionadas con los importes a periodificar, hemos determinado que esta área es significativa y susceptible de incorrección material, particularmente en el cierre del ejercicio, en relación con la imputación temporal de los ingresos, motivo por el cual se ha considerado un aspecto relevante de nuestra auditoría.

Nuestros principales procedimientos de auditoría incluyeron, entre otros, la comprensión y revisión de los procesos utilizados por la Sociedad para efectuar los registros correspondientes, así como la selección de determinados contratos para verificar la correcta aplicación de la sistemática utilizada, así como la razonabilidad de los cálculos realizados. Adicionalmente, hemos evaluado la adecuación de la información presentada en la Nota 9 de la memoria abreviada adjunta.

Cambio de auditores

Éste ha sido nuestro primer año como auditores de la Sociedad, por lo que para asegurarnos de que hemos planificado nuestra auditoría de manera efectiva (i) hemos organizado una reunión con el auditor predecesor para revisar sus documentos de trabajo, (ii) hemos realizado la evaluación de las políticas contables de la Sociedad y de los estados financieros del año anterior, (iii) hemos mantenido una reunión con la dirección de la Sociedad para cerciorarnos de que hemos alcanzado un entendimiento del entorno de control de la misma y de sus procesos y (iv) como parte de nuestra revisión de los documentos de trabajo del auditor predecesor, hemos obtenido evidencia de los saldos de apertura al inicio de nuestro primer año como auditores. A continuación, hemos planificado nuestra auditoría para obtener evidencia de los saldos finales teniendo en cuenta este trabajo.



Bestelako gaiak

2023ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiari dagozkion Sozietatearen urteko kontu laburtuak beste kontu-ikuskatzaile batek ikuskatu zituen, 2024ko apirilaren 12an hoiei buruzko aldeko iritzia adierazi zuelarik.

Administratzaileen erantzukizuna urteko kontuei dagokienez

Administratzaileen erantzukizuna da erantsitako urteko kontu laburtuak egitea, Sozietatearen ondarearen, finantza-egoeraren eta emaitzen irudi fidela adierazteko, Espainian sozietateari aplikatu behar zaion finantza-informazioko arau-esparruarekin bat etorriz, bai eta iruzurrengatik edo errakuntzengatik hutsegite materialik gabeko urteko kontuak prestatu ahal izateko beharrezkotzat jotzen duten barne-kontrolarekin bat etorriz ere.

Urteko kontu laburtuak prestatzean, administratzaileen erantzukizuna da funtzionamenduan dagoen enpresa bezala jarraitzeko Sozietateak duen gaitasuna balioztatzea, funtzionamenduan dagoen enpresarekin zerikusia duten gaiak azalduz, eta funtzionamenduan dagoen enpresaren kontabilitate-printzipioa erabiliz; salbuespena izango da administratzaileek Sozietatea likidatzeko edo eragiketak eteteko asmoa dutenean, edo beste aukera errealistarik ez dagoenean.

Urteko kontu laburtuen ikuskaritzaren inguruan, auditorearen erantzukizunak

Gure helburuak hauek dira: urteko kontu laburtuak, osotasunean hartuz, iruzurrengatik edo errakuntzengatik hutsegite esanguratsurik ez duten arrazoizko segurtasuna lortzea eta, gure iritzia barneratzen duen ikuskaritza-txostena igortzea.

Otras cuestiones

Las cuentas anuales abreviadas de la Sociedad correspondientes al ejercicio terminado a 31 de diciembre de 2023 fueron auditadas por otro auditor que expresó una opinión favorable sobre las mismas el 12 de abril de 2024.

Responsabilidad de los administradores en relación con las cuentas anuales abreviadas

Los administradores son responsables de formular las cuentas anuales abreviadas adjuntas, de forma que expresen la imagen fiel del patrimonio, de la situación financiera y de los resultados de la Sociedad, de conformidad con el marco normativo de información financiera aplicable a la entidad en España, y del control interno que consideren necesario para permitir la preparación de cuentas anuales libres de incorrección material, debida a fraude o error.

En la preparación de las cuentas anuales abreviadas, los administradores son responsables de la valoración de la capacidad de la Sociedad para continuar como empresa en funcionamiento, revelando, según corresponda, las cuestiones relacionadas con la empresa en funcionamiento y utilizando el principio contable de empresa en funcionamiento excepto si los administradores tienen intención de liquidar la sociedad o de cesar sus operaciones, o bien no exista otra alternativa realista.

Responsabilidades del auditor en relación con la auditoría de las cuentas anuales abreviadas

Nuestros objetivos son obtener una seguridad razonable de que las cuentas anuales abreviadas en su conjunto están libres de incorrección material, debida a fraude o error, y emitir un informe de auditoría que contiene nuestra opinión.



Arrazoizko segurtasuna lortzea segurtasun maila altua da, baina ez du bermatzen Espainian indarrean dagoen kontu-ikuskaritzaren jardura erregulatzen duen araudiaren arabera egindako ikuskaritzak existitu daitekeen hutsegite esanguratsu bat beti antzeman dezakeenik. Hutsegiteak iruzurrengatik edo errakuntzengatik sor daitezke, eta materialtzat hartuko dira, baldin eta, bai banaka zein modu bateratuan hartuta, erabiltzaileek urteko kontu laburtuetan oinarrituta hartzen dituzten erabaki ekonomikoetan eragina izango dutela aurreikus badaiteke.

Espainian indarrean dagoen kontu-ikuskaritza arautegia jarraituz egindako ikuskaritza lan guztian, eszeptizismoz eta irizpen profesionala aplikatuz jardun dugu. Baita ere:

- Urteko kontuetan, iruzurrengatik edo errakuntzengatik, hutsegite esanguratsuak egoteko arriskuak identifikatu eta balioztatu egiten ditugu; arrisku horiei erantzuna emateko prozedurak diseinatzeko eta aplikatzeko ditugu; eta ebidentzia nahikoa eta egokia lortzen dugu gure iritzia emateko oinarria izateko. Iruzurrerengatik gerta daitekeen hutsegite esanguratsua ez antzemateko arriskua, errakuntzengatik hutsegite esanguratsua ez antzematekoa baino handiagoa da, izan ere iruzurrak kolusioaren, faltsutzearen, nahita egindako ez-egitearen, nahita egindako adierazpen okerren, edo barne-kontrolaren saihespenaren ondorioz izan daitezke.
- Ikuskaritzarako garrantzitsua den barne-kontrolaren ezagupena lortzen dugu, egoeraren arabera egokiak diren ikuskaritza-prozedurak diseinatzeko helburuarekin; eta ez, erakundearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko helburuarekin.

Seguridad razonable es un alto grado de seguridad, pero no garantiza que una auditoría realizada de conformidad con la normativa reguladora de la actividad de auditoría vigente en España siempre detecte una incorrección material cuando existe. Las incorrecciones pueden deberse a fraude o error y se consideran materiales si, individualmente o de forma agregada, puede preverse razonablemente que influyan en las decisiones económicas que los usuarios toman basándose en las cuentas anuales abreviadas.

Como parte de una auditoría de conformidad con la normativa reguladora de la actividad de auditoría de cuentas en España, aplicamos nuestro juicio profesional y mantenemos una actitud de escepticismo profesional durante toda la auditoría. También:

- Identificamos y valoramos los riesgos de incorrección material en las cuentas anuales, debida a fraude o error, diseñamos y aplicamos procedimientos de auditoría para responder a dichos riesgos y obtenemos evidencia de auditoría suficiente y adecuada para proporcionar una base para nuestra opinión. El riesgo de no detectar una incorrección material debida a fraude es más elevado que en el caso de una incorrección material debida a error, ya que el fraude puede implicar colusión, falsificación, omisiones deliberadas, manifestaciones intencionadamente erróneas o la elusión del control interno.
- Obtenemos conocimiento del control interno relevante para la auditoría con el fin de diseñar procedimientos de auditoría que sean adecuados en función de las circunstancias, y no con la finalidad de expresar una opinión sobre la eficacia del control interno de la entidad.



- Aplikatutako kontabilitate-politikak egokiak diren balioztatzen dugu; baita kontabilitate-estimazioen arrazoigarritasuna eta administratzaileek emandako informazioa ere.
- Administratzaileek funtzionamenduan dagoen enpresaren kontabilitate-printzipioa egoki erabili duten ondorioztatzen dugu; eta lortutako ikuskaritza-ebidentzian oinarrituta, Sozietateak funtzionamenduan dagoen enpresa bezala jarraitzeko duen gaitasuna zalantza esanguratsuak sor ditzaketen gertakari edo baldintzekin lotutako ziurgabetasun esanguratsurik dagoen edo ez ondorioztatzen dugu. Ziurgabetasun esanguratsua dagoela ondorioztatzen badugu, gure ikuskaritza-txostenean ohartarazi behar dugu urteko kontu laburtuetan honi buruz emandako informazioa edo, emandako informazioa ez bada egokia, iritzi-aldatua eman behar dugu. Gure ondorioak, ikuskaritza-txosteneko datara arte lortutako ikuskaritza-ebidentzian oinarritzen dira. Hala ere, etorkizuneko gertaeren edo baldintzen ondorioz, Sozietateak funtzionamenduan dagoen enpresa izatez utz dezake.
- Urteko kontu laburtuen aurkezpen globala, egitura eta edukia balioztatzen dugu, emandako informazioa barne; baita urteko kontuek transakzioak eta hauen inguruko gertaerak irudi fidela erakusteko moduan jasotzen dituzten ere.
- Evaluamos si las políticas contables aplicadas son adecuadas y la razonabilidad de las estimaciones contables y la correspondiente información revelada por los administradores.
- Concluimos sobre si es adecuada la utilización, por los administradores, del principio contable de empresa en funcionamiento y, basándonos en la evidencia de auditoría obtenida, concluimos sobre si existe o no una incertidumbre material relacionada con hechos o con condiciones que pueden generar dudas significativas sobre la capacidad de la Sociedad para continuar como empresa en funcionamiento. Si concluimos que existe una incertidumbre material, se requiere que llamemos la atención en nuestro informe de auditoría sobre la correspondiente información revelada en las cuentas anuales abreviadas o, si dichas revelaciones no son adecuadas, que expresemos una opinión modificada. Nuestras conclusiones se basan en la evidencia de auditoría obtenida hasta la fecha de nuestro informe de auditoría. Sin embargo, los hechos o condiciones futuros pueden ser la causa de que la Sociedad deje de ser una empresa en funcionamiento.
- Evaluamos la presentación global, la estructura y el contenido de las cuentas anuales abreviadas, incluida la información revelada, y si las cuentas anuales representan las transacciones y hechos subyacentes de un modo que logran expresar la imagen fiel.

Erakundeko administratzaileekin harremanetan egoten gara, besteak beste, planifikatutako ikuskaritza noiz egin eta zer irismen izango duen jakiteko, ikuskaritzan azaldutako kontu nagusiak aztertzeke, bai eta ikuskaritzan aurkitutako barne kontrolaren edozein gabezia esanguratsuren harira ere.

Erakundeko administratzaileei jakinarazi zaizkien arrisku esanguratsuen artean, aldi honetako urteko kontu laburtuen ikuskaritzan esanguratsuenak izan direnak zehazten ditugu, horiexek baitira garrantzitsuentzat jo ditugunak.

Nos comunicamos con los administradores de la entidad en relación con, entre otras cuestiones, el alcance y el momento de realización de la auditoría planificados y los hallazgos significativos de la auditoría, así como cualquier deficiencia significativa del control interno que identificamos en el transcurso de la auditoría.

Entre los riesgos significativos que han sido objeto de comunicación a los administradores de la entidad, determinamos los que han sido de la mayor significatividad en la auditoría de las cuentas anuales abreviadas del periodo actual y que son, en consecuencia, los riesgos considerados más significativos.



- 7 -

Arrisku horiek gure ikuskaritza-txostenean deskribatzen ditugu, salbu eta legezko edo arauzko xedapenek gai horiek plazaratzea debekatzen badute.

Describimos esos riesgos en nuestro informe de auditoría salvo que las disposiciones legales o reglamentarias prohíban revelar públicamente la cuestión.

Donostian, 2025eko apirilaren 1ean

Donostia, a 1 de abril de 2025

Betean Auditoría, S.L.P.

(ROACean S-1.354 zenbakiz inskribatutako sozietatea /

Sociedad inscrita en el ROAC con el nº S-1.354)

José Ignacio Miguel Salvador

(11.305 zenbakiarekin ROAC-ean inskribatuta /

Inscrito en el ROAC con el nº 11.305)



***SERVICIOS FUNERARIOS DE DONOSTIA-SAN
SEBASTIÁN, S.A.***

2024KO ABENDUAREN 31KO URTEKO KONTU LABURTUAK

***CUENTAS ANUALES ABREVIADAS AL 31 DE DICIEMBRE DE
2024***



**DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN**

Donostia Hileta Zerbitzuak, S.A.
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián, S.A.
Polloe plaza, 2 | Tel. 943483540 | polloe@donostia.eus | www.polloe.eus
20012 Donostia / San Sebastián

DONOSTIA HILETA ZERBITZUAK, S.A.

Egoera-balantze laburtua abenduaren 31n

(Eurotan adierazita)

AKTIBOA	OHARRA	2024	2023
A. AKTIBO EZ KORRONTEA		1.681.320,94	1.792.555,20
I. Ibilgetu ukiezina	5	187.163,88	194.177,66
II. Ibilgetu materiala	6	1.494.157,06	1.597.777,54
V. Epe luzerako finantza inbertsioak		-	600,00
B. AKTIBO KORRONTEA		2.600.982,00	2.510.343,77
II. Izakinak		1.109,44	1.285,30
III. Zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuak		149.725,01	152.525,54
1. Salmentengatik eta zerbitu emateengatik bezeroak	7	141.732,95	150.868,31
3. Bestelako zordunak	12	7.992,06	1.657,23
V.Epe laburreko finantza inbertsioak	7	1.490.000,00	1.490.000,00
VII. Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak		960.147,55	866.532,93
AKTIBOA GUZTIRA		4.282.302,94	4.302.898,97
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	OHARRA	2024	2023
A. ONDARE GARBIA		3.250.146,03	3.290.046,67
A.1 Funtz propioak	8	3.226.146,03	3.258.046,67
I. Kapitala	8	1.292.100,00	1.292.100,00
1. Kapital eskrituratua		1.292.100,00	1.292.100,00
III. Erreserbak		1.565.946,67	1.611.528,11
VII. Ekitaldiko emaitza	3	368.099,36	354.418,56
A. 3 Hartutako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	10	24.000,00	32.000,00
B. PASIBO EZ KORRONTEA		714.695,28	709.620,86
II. Epe luzerako zorrak	11	9.569,26	9.569,26
3. Epe luzerako bestelako zorrak		9.569,26	9.569,26
V. Epe luzerako periodifikazioak	9	705.126,02	700.051,60
C. PASIBO KORRONTEA		317.461,63	303.231,44
III. Epe laburreko zorrak		6.094,06	8.257,61
3.Epe laburreko bestelako zorrak	11	6.094,06	8.257,61
V. Hartzekodun komertzialak eta ordaintzeko bestelako kontuak		244.596,98	230.225,10
1. Homitzaileak	11	50.465,58	42.940,97
2. Bestelako hartzekodunak	11,12	194.131,40	187.284,13
VI. Epe laburreko periodifikazioak	9	66.770,59	64.748,73
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA		4.282.302,94	4.302.898,97

Donostian, 2025eko martxoaren 31n

Memoria laburtu honetako 1etik 16era bitarteko oharrak 2024ko abenduaren 31n bukatutako urteko ekitaldiari dagozkion balantze laburtuaren parte dira.



**DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN**

➤ Donostia Hileta Zerbitzuak, S.A.
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián, S.A.

Polloe plaza, 2 | Tel. 943483540 | polloe@donostia.eus | www.polloe.eus
20012 Donostia / San Sebastián

DONOSTIA HILETA ZERBITZUAK, S.A.

**Galera eta irabazien kontu laburtua abenduaren 31n
amaituriko ekitaldiari dagokiona
(Eurotan adierazita)**

	OHARRA	2024	2023
1. Negozio zifraren zenbateko garbia	14	1.592.447,72	1.576.446,52
4. Hornikuntzak	14	(196.794,90)	(188.510,14)
5. Ustiapeneko bestelako sarrerak		50.722,55	41.854,85
6. Pertsonal-gastuak	14	(775.594,88)	(695.058,51)
7. Ustiapeneko bestelako gastuak	14	(241.150,11)	(262.939,68)
8. Ibilgetuaren amortizazioa		(111.429,26)	(116.120,80)
9. Ibilgetu ez-finantzarioko diru-laguntzen eta bestelakoen egozpena	10	8.000,00	8.000,00
12. Bestelako emaitzak		(546,06)	(671,43)
A) USTIAPENeko EMAITZA		325.655,06	363.000,81
12. Sarrera finantzarioak		42.444,30	8.386,73
13. Gastu finantzarioak		-	(16.968,98)
B) EMAITZA FINANTZARIOA		42.444,30	(8.582,25)
C) ZERGA AURREKO EMAITZA		368.099,36	354.418,56
17. Mozkinen gaineko zerga	12	-	-
D) EKITALDIKO EMAITZA		368.099,36	354.418,56

Donostian, 2025eko martxoaren 31n

Memoria laburtu honetako 1etik 16era bitarteko oharrak 2024ko abenduaren 31n bukatutako urteko ekitaldiari dagozkion galera eta irabazi kontu laburtuaren parte dira.



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

➤ Donostia Hileta Zerbitzuak, S.A.
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián, S.A.

Polloe plaza, 2 | Tel. 943483540 | polloe@donostia.eus | www.polloe.eus
20012 Donostia / San Sebastián

DONOSTIA HILETA ZERBITZUAK, S.A.

TXOSTEN LABURTUA

2024ko ekitaldia
(Eurotan adierazita)

1. OHARRA SOZINETATEAREN JARDUERA

DONOSTIA HILETA ZERBITZUAK, S.A. (hemendik aurrera “Sozietatea” idatziko duguna) 2001eko irailaren 6an eratu zen. Donostian du helbidea, Polloe plaza, 2 (Gipuzkoa).

2010eko azaroaren 26an egindako Akziodunen Ezohiko Batzarrak, beste erabaki batzuen artean, helburu sozialaren aldaketa partziala erabaki zuen, eta une horretatik aurrera horrela geratu zen zehaztuta:

Sozietateak Errausketa labe eta Hilerri Zerbitzuen kudeaketa, garapena eta ustiaketa du helburu sozialtzat, eta horien barruan honakoak daude:

- a) Udaletako hilerrien kudeaketa eta ustiaketa.
- a) Errausketa-labeen kudeaketa eta ustiaketa.
- c) Hilerriak eta errausketa-labeak kontserbatzea eta mantentzea.
- d) Hildakoen hilerrietako harrera.
- e) Gorpuak edo gorpuzkiak ehorztea, hilobitik ateratzea eta erraustea.
- f) Hilobiak eta horma-hilobiak eraikitzea.
- g) Hilobi eta horma-hilobien inguruko eskubideak ematea besterentzea eta zin egitea.

Jarduera garatzeko udal-erabakiei jarraiki eta horietan ezarritako baldintzak betez burutuko dira helburu horiek.

Jarduera honek iraupen zehaztugabea izango du Sozietatea udal-baltzu pribatua den bitartean, eta berrogeita hamar urteko iraupena izango du Sozietatea Ekonomiako Mistokoa bihurtzen den datatik aurrera. Merkataritza-Erregistroan idatziz jasota geratuko da Udaleko organo eskumendunek emandako administrazio agiri bidez.



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

➤ Donostia Hileta Zerbitzuak, S.A.
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián, S.A.

Polloe plaza, 2 | Tel. 943483540 | polloe@donostia.eus | www.polloe.eus
20012 Donostia / San Sebastián

Ezarritako epea beteta, Udaletxeari automatikoki itzuliko zaizkio ondasun guztiak, Sozietatearen aktiboa eta errausketa eta hilerriaren zerbitzua emateko instalazioak. Udaletxeak ez du inolako kalte-ordainik ordainduko itzulketa horien truke.

Kasu horretan, Sozietatea desegiteari eta kitatzeari ekingo zaio.

Donostiako udalerrian egiten diren jardueri dagokienez, Donostiako Udalak eutsi egingo die agintea erabiltzea eskatzen duten eta eskuordetu ezin diren funtzioei.

Sozietatea, zeinaren kapital osoa titulartasun publikokoa baita, Administrazio Publikoaren baliabide propio eta zerbitzu tekniko da, eta bertan akziodun bakarraren izaera du, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 24.6 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, eta hark kontratuak eman ahal izango dizkio, kasu bakoitzerako zehazten diren baldintzetan eta baldintzetan.

Sozietateak ezin izango du parte hartu bertan Akziodun Bakarra den Administrazioak deitutako lizitazio publikoetan; hala ere, lizitatzailerik aurkezten ez bada, lizitazioen xede den zerbitzua betetzeko agindu ahal izango zaio.

Bere jarduera bat dator arestian deskribatutako helburu sozialarekin.

2013ko ekitaldian, 5 urteko indarraldiarekin, programa-kontratu bat sinatu zen Donostiako Udalarekin. Horren bidez, Sozietateak bere gain hartzen du hilerrien zerbitzuaren kudeaketa, eta, horrela, 2003ko otsailaren 20ko aurreko kontratua ordeztzen da.

Sozietateak garatzen dituen jarduerak direla-eta, ez du ingurumen-arloko erantzukizunik, gasturik, aktiborik, hornidurarik edo kontingentziarik. Horregatik, memoria honetan ez da jaso ingurumen-gaiei buruzko informazio espezifikorik.



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

➤ Donostia Hileta Zerbitzuak, S.A.
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián, S.A.

Polloe plaza, 2 | Tel. 943483540 | polloe@donostia.eus | www.polloe.eus
20012 Donostia / San Sebastián

2. OHARRA URTEKO KONTUAK AURKEZTEKO OINARRIAK

a) Irudi fidela

Sozietatearen kontabilitate-erregistroetatik abiatuta egin dira urteko kontuak, eta indarrean dagoen merkataritza-legeriaren arabera eta Kontabilitate Plan Orokorra eta haren ondorengo aldaketak onartzen dituen azaroaren 16ko 1514/07 Errege Dekretuan ezarritako arauen arabera aurkeztu dira, bai eta nahitaezko kontabilitate-arloko lege-xedapenen arabera ere, sozietatearen ondarearen, finantza-egoeraren eta emaitzen irudi fidela erakusteko.

Sozietateko Administrazioaileek formulatu dituzte 2024ko ekitaldiko urteko kontuak, eta Akziodunen Batzar Nagusiak onartu zain daude, aldaketarik gabe onartuko direla uste baita.

Akziodunen Batzar Orokorrak 2024ko apirilaren 25ean onartu zituen 2023ko ekitaldiko urteko kontuak.

b) Erabilitako kontabilitate-oinarriak

Urteko kontu hauek egiteko aplikatutako kontabilitate-printzipio eta -irizpideak memoria honetako 4. oharrean adierazitakoak dira. Printzipio eta irizpide horiek nahitaez aplikatu beharrekoak dira, eta ez dira aplikatu nahitaezkoak ez diren kontabilitate-printzipio edo -irizpideak.

c) Ziurgabetasunaren balorazio eta balioespenari buruzko alderdi kritikoak

Urteko kontuak prestatzeko, etengabe ebaluatzen diren eta esperientzia historikoan eta beste faktore batzuetan oinarritzen diren etorkizunarekin lotutako zenbatespen eta judizio batzuk erabili behar ditu Sozietateak, zirkunstantzien arabera arrazoizkoak diren etorkizuneko gertaeren itxaropenak barne.

d) Sozietatearen eraketa

Donostiako Udalak erabaki zuen sozietatea eratzea, bere helburu soziala osatzen duten zerbitzuak kudeatzeko modurik egokiena zela iritzita. Zerbitzu horiek udalak berak egiten zituen lehenago, hilerriaren eta errausketa-labearen jarduerari zegokionez, eta Zorroaga Fundazioak, berriz, emakida bidez, hileta-zerbitzuei zegokienez.



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

➤ Donostia Hileta Zerbitzuak, S.A.
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián, S.A.
Polloe plaza, 2 | Tel. 943483540 | polloe@donostia.eus | www.polloe.eus
20012 Donostia / San Sebastián

Sozietatea Donostiako Segura Zurbano notarioaren aurrean egindako eskritura publikoaren bidez eratu zen, 2001eko irailaren 6an, 2.787 protokolo-zenbakiarekin.

Sozietatea eratzeke kapitala 1.292.100 eurokoa izan zen eta diruzkoak ez diren ekarpenen bidez ordaindu zen ondorengo xehetasunen arabera:

- Ondasun-elementuak:
 - Zorroagako Beilatokiko altzariak eta makineria
 - Ehorztetxeko altzariak.
 - Ekipo informatikoak.
 - Ibilgailuak.
- Errausketa-labearen erabilerarako eskubidea berrogeita hamar urtez.

Guztira 1.292.100 eurotan baloratu da. Kontabilitate-kontukako banaketa estimazioen arabera egin da.

Bestalde, Donostiako Udalak 2000ko urriaren 26an hartutako erabakiaren arabera, jasoa geratu zen eratutako Sozietatearen kapitalari egindako ekarpena honakoa izango zela: errausketa-labearen eraikina eta instalazioak erabiltzeko eskubidea eta hileta zerbitzuen likidazio balioa osatzen duten ondasunak, eskubideak eta kargak, partida zirkulatzailer aktibo zein pasiboetan eragina duten saldoak sartuta daudela. Horregatik, hileta zerbitzuen jardueratik eratorritako ondasun, eskubide eta betebeharrak guztiak erregistratu ditu Sozietateak, eraketa eskrituran jasota ez badaude ere.

Hau izan zen balioen erregistroa eratu zen unean:

Kontabilitate-kontua	Kargu (Abonu)
- Ibilgetu ez-materiala	350.688,89
- Ibilgetu materialaren kostu balioa	1.093.004,78
- Amortizazio metatua ibilgetu materiala	(151.593,67)
- Finantza ibilgetua	4.988,40
- Aktibo zirkulatzailer	1.068.086,86
- Kapital diru-laguntzak	(37.197,85)
- Pasibo zirkulatzailer	(336.031,05)
- Donostiako Udalaren aldeko zorra	(699.836,36)
- Kapital ekarpenaren zenbatekoa	1.292.100,00



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

➤ Donostia Hileta Zerbitzuak, S.A.
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián, S.A.
Polloe plaza, 2 | Tel. 943483540 | polloe@donostia.eus | www.polloe.eus
20012 Donostia / San Sebastián

e) **Informazioa alderatzea**

2024ko ekitaldiko urteko kontua laburtuak egiteko, aurreko ekitaldiko urteko kontu laburtuak burutzeko erabili ziren printzipio eta balorazio-arau berberak erabili dira.

f) **Kontabilitate balioespenen aldaketak**

Kontabilitatearen balioespenen aldaketatzat joko dira ondokoak: aktiboen edo pasiboen kontabilitate balioan egindako doikuntzak, edo aktibo baten geroko kontsumoaren zenbatekoan egindakoak; doikuntza horiek egiten dira Sozietateak informazio gehigarria lortu duelako, esperientzia handiagoa duelako edo beste egitate batzuk ezagutu dituelako.

Kontabilitate balioespenen aldaketak geroko moduan aplikatzen dira, eta haren eragina dagokion eragiketaren izaeraren arabera egotziko da, ekitaldiko galdu-irabazien kontuko diru-sarrera edo gastu gisa.

3. OHARRA **EMAITZEN BANAKETA**

Administrazio Kontseiluak emaitzen banaketa hau proposatuko dio Akziodunen Batzar Nagusiari:

	ZENBATEKOA
<u>BANAKETA OINARRIAK</u>	<u>368.099,36</u>
- Galerak eta irabaziak (Mozkinak)	368.099,36
<u>BANAKETA</u>	<u>368.099,36</u>
- Borondatezko erreserbara	368.099,36



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Donostia Hileta Zerbitzuak, S.A.
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián, S.A.
Polloe plaza, 2 | Tel. 943483540 | polloe@donostia.eus | www.polloe.eus
20012 Donostia / San Sebastián

4. OHARRA BALORAZIO ARAUAK

Hona hemen urteko kontuak egiteko aplikatu diren kontabilitate-irizpide esanguratsuenak:

a) Ibilgetu ukiezina

Ibilgetu ukiezinaren balioa, funtsean, errausketa-labea erabiltzeko eskubideari esleitutakoak osatzen du, eta hori Sozietatearen eraketan egindako erregistrotik ondorioztatzen da.

Ibilgetu ez-materiala osatzen duten elementuen amortizazioa haien bizitza erabilgarriaren arabera egiten da, honako xehetasun honen arabera:

	Bizitza erabilgarriko urteak
- Errausketa-labearen erabileraren eskubideak	50
- Industria-jabetza	4
- Informatika-aplikazioak	3

b) Ibilgetu materiala

Sozietatea eratzean emandako ibilgetu materialeko elementuen balioa hileta-zerbitzuen jarduerari buruzko Zorroaga Fundazioaren erregistroetan zuen kontabilitate-balio garbiaren arabera erregistratu zen.

Ondorengo inbertsioak eskuratze-kostuaren arabera balioesten dira.

Elementu horien amortizazioa linealki egiten da, bakoitzari esleitutako bizitza erabilgarriaren arabera.

Ibilgetuko elementuei esleitutako balio-bizitza motak honako hauek dira:

	Bizitza erabil.
- Eraikinak	50
- Makineria	4
- Instalazioak	4
- Altzariak	8
- Informazioa prozesatzeko ekipoak	4
- Garraio-elementuak	5



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

➤ Donostia Hileta Zerbitzuak, S.A.
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián, S.A.
Polloe plaza, 2 | Tel. 943483540 | polloe@donostia.eus | www.polloe.eus
20012 Donostia / San Sebastián

c) Finantza-aktiboak

Sailkapena

Sozietateak dituen finantza-aktiboak kategoria hauetan sailkatzen dira:

* Kostu amortizatuko aktibo finantzarioak

Barne hartzen ditu aktibo finantzarioak, baita merkatu antolatu batean negoziatzeko onartutakoak ere, baldin eta Sozietateak inbertsioari eusten badio kontratua gauzatzetik eratorritako eskudiru-fluxuak jasotzeko helburuarekin, eta aktiboaren kontratu-baldintzek, zehaztutako datetan, eskudiru-fluxuak sorrarazten dituzte, hau da, printzipalaren kobrantzak eta ordaintzeko dagoen printzipalaren zenbatekoaren gaineko interesak. Oro har, kategoria honetan sartzen dira:

- Eragiketa komertzialengatiko kredituak: kobrantza geroratuko trafiko-eragiketen ondoriozko ondasunen salmentan edo zerbitzuak ematean sortutakoak, eta
- Eragiketa ez-komertzialengatiko kredituak: Sozietateak emandako mailegu edo kreditu eragiketetatik datoz, eta horien kobrantzak zenbateko jakin edo zehazgarrikoak dira.

* Ondare garbian aldaketak dituzten arrazoizko balioko aktibo finantzarioak

Kategoria honetan sartzen dira kontratu-baldintzek diru-fluxuak sorrarazten dituzten aktibo finantzarioak, zehaztutako datetan. Fluxu horiek printzipalaren kobrantzak eta falta den printzipalaren zenbatekoaren gaineko interesak dira soilik, eta ez dira negoziatzeko mantentzen, eta ez dira aurreko kategorian sailkatzen. Kategoria honetan sartuko dira, halaber, ondare-tresnetan egindako inbertsioak, Sozietateak hasierako aintzatespenean atzera bueltarik gabe izendatutakoak, baldin eta negoziatzeko mantentzen ez badira eta kostuan baloratu behar ez badira.

* Kostuko finantza-aktiboak

Honako inbertsio hauek sartzen dira kategoria honetan:

- a) Taldeko enpresen, talde anitzekoen eta elkartuen ondare-tresnak;
- b) arrazoizko balioa fidagarritasunez zehaztu ezin zaien ondare-tresnak, eta inbertsio horien azpian dauden deribatuak;
- c) arrazoizko balioa fidagarritasunez zenbatetsi ezin zaien aktibo finantzario hibridoak, kostu amortizatuan kontabilizatzeko baldintzak betetzen direnean izan ezik;
- d) partaidetzako kontu-kontratuetan eta antzekoetan egindako ekarpenak;
- e) interes kontingenteak dituzten partaidetza-maileguak;



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

➤ Donostia Hileta Zerbitzuak, S.A.
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián, S.A.

Polloe plaza, 2 | Tel. 943483540 | polloe@donostia.eus | www.polloe.eus
20012 Donostia / San Sebastián

- f) hurrengo kategorian sailkatu beharko liratekeen finantza-aktiboak, baina arrazoizko balioa ezin da modu fidagarrian kalkulatu.

Taldeko enpresatzat hartzen dira Sozietatearekin kontrol-harreman baten bidez lotutakoak, eta elkartutako enpresatzat, berriz, Sozietateak eragin nabarmena duen enpresak. Horrez gain, talde anitzeko kategoriaren barruan sartzen dira, akordio baten ondorioz, bazkide batekin edo gehiagorekin batera kontrolatzen diren sozietateak.

* **Galdu-irabazien kontuan aldaketak dituzten arrazoizko balioko aktibo finantzarioak**

Negoziatzeko mantendutako aktibo finantzarioak eta aurreko kategorietan sailkatu ez diren aktibo finantzarioak barne hartzen ditu. Era berean, kategoriatan sartzen dira Sozietateak hasierako aintzatespenaren unean aukeran izendatzen dituen finantza-aktiboak, bestela beste kategoriatan sartuko liratekeenak, izendapen horrek balorazio-inkoherentzia edo kontabilitateko asimetria ezabatzen edo nabarmen murrizten duelako.

Hasierako balorazioa

Finantza-aktiboak, oro har, hasieran entregatutako kontraprestazioaren arrazoizko balioari zuzenean egotz dakizkiokeen transakzioaren kostuak gehituta erregistratzen dira. Hala ere, galdu-irabazien kontuan aldaketak dituzten arrazoizko balioan erregistratutako aktiboei zuzenean egotz dakizkiokeen transakzio-kostuak ekitaldiko galdu-irabazien kontuan kontabilizatuko dira.

Mendeko sozietatearen gaineko kontrola ematen duten Taldeko enpresen ondarean egindako inbertsioen kasuan, inbertsioa eskuratzearekin zerikusia duten legezko aholkulariei edo bestelako profesionalei ordaindutako ordainsariak galdu-irabazien kontura egotzen dira zuzenean.

Ondorengo balorazioa

Kostu amortizatuko aktibo finantzarioak balorazio-irizpide hori aplikatuta erregistratuko dira, eta sortutako interesak galdu-irabazien kontura egotziko dira, interes-tasa efektiboaren metodoa aplikatuta.

Ondare garbian aldaketak dituzten arrazoizko balioaren kategorian sartutako aktibo finantzarioak arrazoizko balioan erregistratuko dira, besterentzean izan litezkeen transakzio-kostuak kendu gabe. Arrazoizko balioan gertatzen diren aldaketak zuzenean erregistratuko dira ondare garbian, aktibo finantzarioak balantzetik baja eman edo narriatu arte, eta, une horretan, horrela aintzatetsitako zenbatekoa galdu-irabazien kontura egotziko da.



**DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN**

➤ Donostia Hileta Zerbitzuak, S.A.
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián, S.A.
Polloe plaza, 2 | Tel. 943483540 | polloe@donostia.eus | www.polloe.eus
20012 Donostia / San Sebastián

Galdu-irabazien kontuan aldaketak dituzten arrazoizko balioko aktibo finantzarioak arrazoizko balioan balioztatzen dira, eta arrazoizko balio horretan izandako aldaketen emaitza galdu-irabazien kontuan erregistratzen da.

Taldeko enpresetako, enpresa elkartuetako eta talde anitzetako inbertsio gisa sailkatutako inbertsioak kostuaren arabera balioesten dira, narriaduragatik egindako balio-zuzenketen zenbateko metatua kenduta, hala badagokio. Zuzenketa horiek honela kalkulatzen dira: kontabilitate-balioaren eta zenbateko berreskuragarriaren arteko aldea, hau da, arrazoizko balioa ken salmenta-kostuak eta inbertsiotik eratorritako etorkizuneko eskudiru-fluxuen balio eguneratuaren arteko zenbateko handiena. Zenbateko berreskuragarriaren ebidentzia hoberik ezean, erakunde partaidetuaren ondare garbia hartzen da kontuan, balioespenaren datan dauden ezkutuko gainbalioek zuzenduta (merkataritza-fondoa barne, halakorik balego).

Zehazki, eta merkataritza-zordunei eta kobratu beharreko beste kontu batzuei dagozkien balio-zuzenketei dagokienez, Sozietateak balio-zuzenketak kalkulatzeko erabili duen irizpidea, baleude, saldo horien arrazoizko balioa kalkulatzea da, zenbatetsitako etorkizuneko kobrantzen arabera.

Finantza-aktiboen baja

Sozietateak baja ematen die aktibo finantzarioei, dagokion aktibo finantzarioaren eskudiru-fluxuen gaineko eskubideak iraungitzen direnean edo laga direnean, eta nabarmen transferitu dira bere jabetzari datxezkion arriskuak eta mozkinak, hala nola aktiboen salmenta irmoetan, «Factoring» eragiketetako kreditu komertzialen lagapenetan, baldin eta enpresak ez badu inolako kreditu- edo interes-arriskurik atxikitzen, aktibo finantzarioen berrerosteta-itunpeko aktibo finantzarioen salmentetan edo inolako finantza-baloreen atxikipenetan.

Aitzitik, Sozietateak ez die baja ematen aktibo finantzarioei, eta jasotako kontraprestazioaren zenbateko bereko pasibo finantzario bat aitortzen du, bere jabetzari datxezkion arriskuak eta mozkinak funtsean atxikitzen diren aktibo finantzarioen lagapenetan, hala nola efektuen deskontua, baliabide instrumentala duen “errekurtsodun factoringa”, berrerosteko itunak dituzten aktibo finantzarioen salmentak prezio finkoan edo salmenta-prezioan gehi interes bat, eta aktibo finantzarioen titulizazioak, non enpresa lagatzaileak espero diren galera guztiak funtsean xurgatzen dituzten mendeko finantzazioak edo bestelako bermeak atxikitzen dituen.



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

➤ Donostia Hileta Zerbitzuak, S.A.
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián, S.A.
Polloe plaza, 2 | Tel. 943483540 | polloe@donostia.eus | www.polloe.eus
20012 Donostia / San Sebastián

d) Izakinak

Artikulu komertzialez osatutako izakin guztiak eskuratze-kostuan balioesten dira. Izakinen balio bihurtgarria kostua baino txikiagoa denean, dagozkion balioespen-zuzenketak egingo dira, eta galdu-irabazien kontuan gastu gisa kontabilizatuko dira. Balio-zuzenketa eragiten duten inguruabarrak desagertu egiten badira, zuzenketaren zenbatekoa itzuli egingo da, eta diru-sarrera gisa aitortuko da galdu-irabazien kontuan.

e) Finantza-pasiboak

Sozietateak bere gain hartutako edo egindako pasibo finantzarioak balorazio-kategoria hauetan sailkatzen dira:

* Kostu amortizatuko pasibo finantzarioak

Sozietateak dituen eta enpresaren trafiko-eragiketengatik ondasunak eta zerbitzuak erostean sortu diren zorrak eta ordaintzeko partidak dira, edo, merkataritza-jatorririk izan gabe, tresna deribatuak ez izanik, Sozietateak jasotako mailegu edo kreditu eragiketetatik datozenak.

Pasibo horiek, hasieran, jasotako kontraprestazioaren arrazoizko balioaren arabera balioesten dira, zuzenean egotz daitezkeen transakzioaren kostuen arabera doituta. Ondoren, pasibo horiek amortizatutako kostuaren arabera balioesten dira.

* Galdu-irabazien kontuan aldaketak dituzten arrazoizko balioko pasibo finantzarioak

Ordaindu beharreko zorrak eta partidak, hasieran, jasotako kontraprestazioaren arrazoizko balioaren arabera balioesten dira, zuzenean egotz daitezkeen transakzioaren kostuekin doituta. Ondoren, pasibo horiek amortizatutako kostuaren arabera balioesten dira.

Aktiboak eta pasiboak bereizita aurkezten dira balantzean, eta zenbateko garbian bakarrik aurkezten dira, sozietateak aitortutako zenbatekoak konpentsatzeko eskubide galdagarria duenean eta, gainera, kopuruak garbiaren bidez likidatzeko edo aktiboa egin eta pasiboa aldi berean kitatzeko asmoa dutenean.

Sozietateak baja ematen die finantza-pasiboei, pasiboak sortu dituzten obligazioak amaitzen direnean.

Urtebete edo gutxiagoko epemuga duten eta kontratuzko interes-tasarik ez duten eragiketa komertzialengatik zorrak beren balio nominalaren arabera baloratuko dira, hasierako unean zein ondoren, diru-fluxuak ez eguneratzearen ondorioa esanguratsua ez denean.



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

➤ Donostia Hileta Zerbitzuak, S.A.
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián, S.A.
Polloe plaza, 2 | Tel. 943483540 | polloe@donostia.eus | www.polloe.eus
20012 Donostia / San Sebastián

f) Sozietateen gaineko zerga

Sozietateen gaineko Zergaren gastua kalkulatzeko, kontabilitate-emaiztan oinarritzen da, kontabilitate-emaiztaren eta sozietateen gaineko zergaren zerga-oinarriaren arteko diferentzia iraunkorren eraginez zuzenduta.

Sozietateak dituen kenkarien eta hobarien zenbatekoak murriztu egiten du aplikatzen diren unean sortutako zerga.

g) Sarrerak eta gastuak

Diru-sarrerak eta gastuak sortzapenaren printzipioaren arabera erregistratzen dira, kobrantzak edo ordainketak sortzen diren unea edozein dela ere. Hala ere, hilerriak kontserbatu eta mantentzeko tasetatik eratorritako saldoak berreskuratzean sortzen den berankortasun-indize handiaren ondorioz, eta balioespen-zuhurtasunaren printzipioarekin bat etorriz, aipatutako tasak diru-sarrera gisa aitortzen dira kobratzeko unean, eta horrek ez du eragin nabarmenik urteko kontuetan.

h) Hornidurak eta kontingentziak

Hornidurak kontabilizatzen dira balantzearen itxiera-datan gaur egungo betebeharrak egiaztatzen direnean, iraganeko gertakarien ondorioz sortuak, eta horiek azkentzeko, baliabide zehatzetatik askatzea espero da, izaerari dagokionez, baina zehaztugabeak zenbatekoari edo ezeztatze-uneari dagokionez.

Administratzaileek kontzeptu horiek kuantifikatzen dituzte une bakoitzean eskuragarri dagoen informazioa kontuan hartuta, betebeharrak bertan behera uzteko edo hirugarren bati transferitzeko behar den zenbatekoaren ahalik eta zenbatespen onenaren balio eguneratuaren arabera, eta ekitaldi bakoitzaren itxieran berrestimatzen dira, eta betebeharrak horiek izateari uzten diotenean edo murrizten direnean berrikusten dira.

i) Lotutako alderdien arteko transakzioak

Urteko kontuak aurkezteari dagokionez, beste enpresa bat taldeko kide dela ulertuko da, biak kontrol-harreman baten bidez lotuta daudenean, Merkataritza Kodearen 42. artikulua, sozietate-taldeentzat.

Loturadun alderdien arteko transakzioak, oro har, arrazoizko balioan baloratzen dira hasieran. Adostutako prezioa eta arrazoizko balioa desberdinak direnean, eragiketaren errealitate ekonomikoaren arabera erregistratzen da aldea. Ondorengo balorazioa kasuan kasuko arauetan aurreikusitakoaren arabera egiten da.



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

➤ Donostia Hileta Zerbitzuak, S.A.
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián, S.A.

Polloe plaza, 2 | Tel. 943483540 | polloe@donostia.eus | www.polloe.eus
20012 Donostia / San Sebastián

j) Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak

Diru-laguntza itzulgarriak pasibo gisa erregistratzen dira, itzultzekotzat jotzeko baldintzak bete arte; diru-laguntza ez-itzulgarriak, berriz, ondare garbira zuzenean egotzitako diru-sarrera gisa erregistratzen dira, eta diru-sarrera gisa aitortzen dira, sistematikoki eta arrazionalki, diru-laguntzatik eratorritako gastuekin korrelazioan.

Diru-laguntza bat itzuli beharrik gabekotzat joko da diru-laguntza emateko banakako akordio bat dagoenean, diru-laguntza emateko ezarritako baldintza guztiak bete direnean eta kobratuko den arrazoizko zalantzarik ez dagoenean.

Inbertsioekin lotutako itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak ekitaldiko diru-sarrera gisa egozten dira, aktiboen amortizazioaren proportzioan, edo, hala badagokio, besterentzen direnean, narriaduragatik balio-zuzenketa egiten denean edo balantzean baja ematen denean.

Gastu espezifikoekin lotutako itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak dagozkien gastuak sortzen diren ekitaldian bertan aitortzen dira galdu-irabazien kontuan, eta ematen diren ekitaldian ustiapen-defizita konpentsatzeko emandakoak, salbu eta etorkizuneko ekitaldietako ustiapen-defizita konpentsatzera bideratzen direnean, kasu horretan ekitaldi horietan egozten baitira.



**DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN**

➤ Donostia Hileta Zerbitzuak, S.A.
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián, S.A.
Polloe plaza, 2 | Tel. 943483540 | polloe@donostia.eus | www.polloe.eus
20012 Donostia / San Sebastián

5. OHARRA IBILGETU UKIEZINA

Hona hemen epigrafe hau osatzen duten balioen bilakaera:

	KOSTUAREAN BALIOA				
	23.01.01eko saldoa	Altak (Bajak)	23.12.31ko saldoa	Altak (Bajak)	24.12.31ko saldoa
- Errausketa-labearen erabileraren eskubidea	350.688,89	-	350.688,89	-	350.688,89
GUZTIRA	350.688,89	-	350.688,89	-	350.688,89

	AMORTIZAZIO METATUA				
	23.01.01eko saldoa	Gehitzeak	23.12.31ko saldoa	Gehitzeak	24.12.31ko saldoa
- Errausketa-labearen erabileraren eskubidea	149.497,45	7.013,78	156.511,23	7.013,78	163.525,01
GUZTIRA	149.497,45	7.013,78	156.511,23	7.013,78	163.525,01

KONTABILITATEKO BALIO GARBIA	201.191,44		194.177,66		187.163,88
-------------------------------------	-------------------	--	-------------------	--	-------------------

2. oharrean aipatu den bezala, ibilgetu ukiezinaren elementuen balioa, funtsean, bazkide bakarrak, Donostiako Udalak, Sozietatea eratu zenean egindako diruzkoak ez diren ekarpenetatik dator.



**DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN**

Donostia Hileta Zerbitzuak, S.A.
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián, S.A.
Polloe plaza, 2 | Tel. 943483540 | polloe@donostia.eus | www.polloe.eus
20012 Donostia / San Sebastián

6. OHARRA IBILGETU MATERIALA

Ibilgetu materialarekin lotutako kontuen mugimendua honako hau izan da:

KOSTUAREN BALIOA							
	23.01.01eko saldoa	Altak	Gutxipenak	23.12.31ko saldoa	Altak	Intsuldaketak (Gutxipenak)	24.12.31ko saldoa
- Eraikuntzak	2.386.869,31	-	-	2.386.869,31	-	-	2.386.869,31
- Instalazio teknikoak	412.817,40	-	-	412.817,40	-	-	412.817,40
- Makineria	34.463,25	-	-	34.463,25	-	-	34.463,25
- Informazioa prozesatzeko ekipoak	2.549,00	-	-	2.549,00	795,00	-	3.344
- Garraio-elementuak	83.315,99	-	-	83.315,99	-	-	83.315,99
GUZTIRA	2.920.014,95	-	-	2.920.014,95	795,00	-	2.920.809,95

AMORTIZAZIO METATUAK							
	23.01.01ko saldoa	Gehitzeak	Gutxipenak	23.12.31ko saldoa	Gehitzeak	Intsuldaketak (Gutxipenak)	24.12.31ko saldoa
- Eraikuntzak	884.664,84	64.503,07	-	949.167,91	64.503,07	-	1.013.670,98
- Instalazio teknikoak	231.170,08	34.350,00	-	265.520,08	34.350,00	-	299.870,08
- Makineria	34.463,25	-	-	34.463,25	-	-	34.463,25
- Informazioa prozesatzeko ekipoak	584,15	637,25	-	1.218,41	819,71	-	2.038,12
- Garraio-elementuak	62.248,07	9.616,70	-	71.867,76	4.742,70	-	76.610,46
GUZTIRA	1.213.130,39	109.107,02	-	1.322.237,41	104.415,48	-	412.981,91

KONTABILITATEKO BALIO GARBIA	1.706.884,56			1.597.777,54			1.494.157,06
---	---------------------	--	--	---------------------	--	--	---------------------

2. oharrean aipatu den bezala, ibilgetu materialeko elementuen balioaren zati handi bat bazkide bakarrak, Donostiako Udalak, Sozietatea eratu zenean egindako diruzkoak ez diren ekarpenetatik dator.

2017ko ekitaldian, 2019an indarrean sartu zen isuri atmosferikoari buruzko euskal araudian izandako aldaketaren ondorioz, Sozietateak erabaki zuen errausketa-labe berri batean eta labeari lotutako isuriak arazteko sistema batean inbertitzea. Inbertsio horren ondorioz, 404 mila euroko azken ordainketa egin da, eta Eusko Jaurlaritzaren 80 mila euroko diru-laguntza jaso dute.



**DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN**

➤ Donostia Hileta Zerbitzuak, S.A.
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián, S.A.
Polloe plaza, 2 | Tel. 943483540 | polloe@donostia.eus | www.polloe.eus
20012 Donostia / San Sebastián

Abenduaren 31n erabat amortizatutako elementuen kontukako xehetasuna honako hau da:

	24.12.31ko kostuaren balioa	23.12.31ko kostuaren balioa
- Instalazio teknikoak	69.317,40	69.317,40
- Makineria	34.463,25	34.463,25
- Garraio-elementuak	64.345,20	27.380,16
GUZTIRA	168.125,85	131.160,81

Sozietatearen politika da balizko arriskuei estaldura emateko beharrezkotzat jotzen diren aseguru-polizak kontratatzea.

Sozietatearen ondasunek ez dute inolako karga edo grabamenik.

Oraindik ez da Jabetza Erregistroan inskribatu errausketa-eraikinaren titulartasuna, Sozietatearen izenean.

7. OHARRA FINANTZA-AKTIBOAK

Egoera-balantzean erregistratutako finantza-tresnen kategorien araberako xehetasuna, balorazio-arauetan araututako sailkapenaren arabera, honako hau da:

	24.12.31ko saldoa	23.12.31ko saldoa
<u>Epe luzerako kostu amortizatuko aktibo finantzarioak</u>	-	<u>600,00</u>
- Langileei kredituak	-	600,00
<u>Epe laburreko kostu amortizatuko aktibo finantzarioak</u>	<u>1.631.732,95</u>	<u>1.640.868,31</u>
- Epe Laburreko finantza inbertsioak	1.490.000,00	1.490.000,00
- Salmenta eta zerbitzu ematen dituzten bezeroak	141.732,95	150.868,31
GUZTIRA	1.631.732,95	1.640.868,31



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

➤ Donostia Hileta Zerbitzuak, S.A.
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián, S.A.
Polloe plaza, 2 | Tel. 943483540 | polloe@donostia.eus | www.polloe.eus
20012 Donostia / San Sebastián

8. OHARRA BEREZKO FUNTSAK

* Sozietatearen kapitala

2024ko abenduaren 31ko kapital soziala, 1.292.100,00 eurokoa, 60 euroko nominala duten 21.535 akziok osatzen dute, Donostiako Udalak erabat harpidetua eta ordaindua diruzkoak ez diren ekarpenen bidez.

* Legezko erreserba

Indarrean dagoen merkataritza-legeriaren arabera, Sozietateak ekitaldiko mozkinaren %10 legezko erreserbara bideratu beharko du, erreserba hori, gutxienez kapital sozialaren %20ra iritsi arte. Erreserba hori kapitala gehitutako kapitalaren %10 gaingitzen duen zatian handitzeko erabili ahal izango da. Helburu horretarako izan ezik, eta Sozietatearen kapitalaren %20 gaingitzen ez duen bitartean, erreserba hori galerak konpentsatzeko bakarrik erabili ahal izango da, baldin eta horretarako beste erreserba nahikorik ez badago.

* Beste erreserba batzuk

Atal hau bat dator erabilera libreko erreserbekin.

Aurreko ekitaldian, 2023ko apirilaren 28an egindako Akziodunen Ohiko Batzar Orokorrak erabaki zuen 400.000,00 euroko dibidendu bat banatzea Borondatezko Erreserben kontura, eta 2023ko maiatzean ordaindu du.

Ekitaldi honetan, Akziodunen Ohiko Batzar Orokorrak, 2024ko apirilaren 25ean egindako bilkuran, erabaki zuen 400.000,00 euroko dibidendu bat banatzea Borondatezko Erreserben kontura, eta 2024ko ekainean ordaindu da.



**DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN**

➤ Donostia Hileta Zerbitzuak, S.A.
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián, S.A.
Polloe plaza, 2 | Tel. 943483540 | polloe@donostia.eus | www.polloe.eus
20012 Donostia / San Sebastián

9. OHARRA PERIODIFIKATZEAK

Sozietateak hileta-eskubideengatikotik tituluetatik eratorritako diru-sarrerak periodifikatzen ditu, eskubide horien iraupen-aldiaren arabera. Ekitaldian izan duen bilakaera honako hau izan da:

	Epe laburrera	Epe luzera
2022ko abenduaren 31ko saldoa	63.662,26	705.633,74
. Gehikuntzak	1.086,47	15.740,74
. Emaizetara intsuldaketa	(67.482,00)	-
. Luzetik laburrera intsuldaketa	63.662,26	(63.662,26)
. Finantza eguneraketa	3.819,74	42.339,38
2023ko abenduaren 31ko saldoa	64.748,73	700.051,60
. Gehikuntzak	2.021,86	28.235,42
. Emaizetara intsuldaketa	(68.633,66)	-
. Luzetik laburrera intsuldaketa	64.748,74	(64.748,74)
. Finantza eguneraketa	3.884,92	41.587,74
2024ko abenduaren 31ko saldoa	66.770,59	705.126,02

10. OHARRA DIRU-LAGUNTZAK, DOHAINTZAK ETA LEGATUAK

Hona hemen egoera-balantzean agertzen diren itzuli beharrik gabeko kapital-diru-laguntzen xehetasunak:

Erakunde emailea	24.12.31ko saldoa	Xedea
Euskal Autonomia Erkidegoa	24.000,00	Ibilgetu-inbertsioak
GUZTIRA	24.000,00	

Diru-laguntza horiek bilakaera hau izan dute:

	2024
Hasierako saldoa	32.000,00
- Gehikuntzak	-
- Emaizari egozteak	(8.000,00)
Amaierako saldoa	24.000,00



**DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN**

➤ Donostia Hileta Zerbitzuak, S.A.
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián, S.A.
Polloe plaza, 2 | Tel. 943483540 | polloe@donostia.eus | www.polloe.eus
20012 Donostia / San Sebastián

11. OHARRA FINANTZA-PASIBOAK

Egoera-balantzean erregistratutako pasibo finantzarioen xehetasuna eta bilakaera, zorren eta ordaintzeko partiden kategoriari dagozkionak, jarraian aurkezten dira:

	24.12.31ko saldoa	23.12.31ko saldoa
<u>Epe luzerako kostu amortizatuko pasibo finantzarioak</u>	<u>9.569,26</u>	<u>9.569,26</u>
- Beste finantza pasibo batzuk (Jasotako fidantzak)	9.569,26	9.569,26
<u>Epe laburreko kostu amortizatuko pasibo finantzarioak</u>	<u>59.769,10</u>	<u>54.406,62</u>
- Dirulaguntza itzulgarriak	6.094,06	8.257,61
- Epe laburreko hornitzaileak	47.592,01	42.923,97
- Hornitzaileak taldeko enpresekin	2.873,57	17,00
- Pertsonala	3.209,46	3.208,04

12. OHARRA ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

Hona hemen Administrazio Publikoekin lotutako saldoen xehetasunak:

	2024	2023
<u>AKTIBO KORRONTEA</u>	<u>7.992,06</u>	<u>1.657,23</u>
- Foru Ogasuna, BEZagatik zordun	0,25	0,25
- Foru Ogasuna, Sozietateen gaineko Zergatik zordun	7.991,81	1.656,98
<u>PASIBO KORRONTEA</u>	<u>190.921,94</u>	<u>184.076,09</u>
- Foru Ogasuna, BEZagatik hartzekodun	135.012,16	132.263,68
- Foru Ogasuna, PFEZtik atxikipen hartzekodun	32.625,72	28.646,90
- Gizarte Segurantza hartzekodun	22.042,46	21.982,79
- Elkarkidetza	1.241,60	1.182,72



**DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN**

➤ Donostia Hileta Zerbitzuak, S.A.
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián, S.A.
Polloe plaza, 2 | Tel. 943483540 | polloe@donostia.eus | www.polloe.eus
20012 Donostia / San Sebastián

Ekitaldiko kontabilitate-emaizaren eta Sozietateen Gaineko Zergaren zerga-oinarriaren arteko kontziliazioa honako hau da:

	2024	2023
1. <u>KONTABILITATE-EMAITZA</u>	<u>368.099,36</u>	<u>354.418,56</u>
2. <u>DESBERDINTASUN IRAUNKORRAK</u>	<u>(368.099,36)</u>	<u>(354.418,56)</u>
- Sortutako Sozietateen gaineko Zerga	-	-
- Zerga arloan kengarri ez diren gastuak	(368.099,36)	(354.418,56)
3. <u>ZERGA OINARRIA (Emaizta Fiskala)</u>	<u>=</u>	<u>=</u>

Sozietateen gaineko Zergaren esparruan 2014ko ekitalditik aurrera aplikatu beharreko zerga-araudiaren arabera, Sozietateak errentak ez integratzeko araubide berri bat du, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 39. artikuluan arautua, zeinaren bidez ez baitira zerga-oinarrian sartzen hilerrien eta hileta-jardueren kudeaketan sortutako errentak.

Sozietateak 53.766,24 euroko kenkariak aplikatu behar ditu, aurreko ekitaldietan sortutako mugekin (53.766,24 euro 2023an).

Bestalde, 2024an eta 2023an kapital higigarriaren etekinen gainean jasandako atxikipenen zenbatekoa 7.991,81 eta 1.656,98 eurokoa izan da.

Zergen likidazioak ezin dira behin betikotzat jo, harik eta agintaritza fiskalek berrikusi arte edo 4 urteko preskripzio-epea igaro arte, Sozietatea eratu zenetik (2001) zerga-ikuskapenaren xede izan ez bada.

Ez da hornidurarik ezarri etorkizunean sor litezkeen gertakari fiskaletarako, une honetan ezezagunak direlako eta, beraz, ezin direlako kuantifikatu; nolahi ere, ez da pasibo gehigarri esanguratsurik eratorriko, erantsitako urteko kontuak indargabetu ditzaketenik.



**DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN**

➤ Donostia Hileta Zerbitzuak, S.A.
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián, S.A.
Polloe plaza, 2 | Tel. 943483540 | polloe@donostia.eus | www.polloe.eus
20012 Donostia / San Sebastián

13. OHARRA ERAGIKETAK ALDERDI LOTUEKIN

Donostiako Udalarekin batera egoera-balantzean partida hori osatzen duten kontzeptuak honako hauek dira:

	2024	2023
<u>Hornitzaileak, taldeko enpresekin eta elkartuekin</u>	<u>2.873,57</u>	<u>17,00</u>
- Zergak eta tasak (ura, saneamenduak, eta abar)	2.873,57	17,00

Sozietateak Donostiako Udalarekin erregistratutako transakzioak honako hauek dira:

Eragiketa	2024	2023
Hilerria erabiltzeko kanona	7.931,20	7.931,20
Beste zerbitzu batzuk	13.513,80	6.606,03
GUZTIRA	21.445,00	14.537,23

14. OHARRA SARRERAK ETA GASTUAK

* Hornikuntzak

	2024	2023
<u>Merkantzien kontsumoa</u>	<u>2.725,13</u>	<u>1.957,72</u>
- Merkantziak erostea	2.549,27	1.619,36
- Merkantzia izakinen aldaketa	175,86	338,36
<u>Beste batzuek egindako obrak eta zerbitzuak</u>	<u>194.069,77</u>	<u>186.552,42</u>
- Beste enpresa batzuek egindako lanak	194.069,77	186.552,42
GUZTIRA	196.794,90	188.510,14



**DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN**

➤ Donostia Hileta Zerbitzuak, S.A.
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián, S.A.
Polloe plaza, 2 | Tel. 943483540 | polloe@donostia.eus | www.polloe.eus
20012 Donostia / San Sebastián

*** Langile-gastuak**

	2024	2023
<u>Soldatak, lansariak eta baliokidetuak</u>	<u>580.406,41</u>	<u>508.611,05</u>
<u>Gizarte-kargak</u>	<u>195.188,47</u>	<u>186.447,46</u>
- Pentsioetarako ekarpenak eta zuzkidurak	6.998,05	6.664,86
- Enpresaren konturako Gizarte Segurantza	185.698,66	177.159,71
- Bestelako gizarte-gastuak	2.491,76	2.622,89
GUZTIRA	775.594,88	695.058,51

*** Bestelako ustiapen gastuak**

Hona hemen galdu-irabazien kontuko epigrafe hau osatzen duten kontzeptuen xehetasunak:

	2024	2023
- Alokairuak eta kanonak	7.931,20	7.931,20
- Konponketak eta mantentze lanak	64.398,99	100.737,70
- Profesional independenten zerbitzuak	20.203,16	27.945,44
- Aseguru-primak	10.479,25	7.048,79
- Banku-zerbitzuak eta antzekoak	904,83	878,12
- Hornidurak	38.869,67	46.511,36
- Beste zerbitzu batzuk	86.133,97	69.793,11
- Beste zerga batzuk	1.284,15	969,23
- Eragiketa komertzialen ondoriozko galerak, narriadurak eta hornidura-aldaketak	10.944,89	1.124,73
GUZTIRA	241.150,11	262.939,68

*** Negozio-zifra eta ustiapeneko beste diru-sarrera batzuk**

Hona hemen negozio-zifraren eta ustiapeneko beste diru-sarrera batzuen kontzeptuen araberako xehetasuna, baita ustiapeneko beste diru-sarrera batzuen ere:

	2024	2023
- <u>Negozio-zifraren zenbateko garbia</u>	<u>1.592.447,72</u>	<u>1.576.446,52</u>
Merkantzien salmenta	4.873,29	7.940,01
Zerbitzuak ematea	1.587.574,43	1.568.506,51



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

➤ Donostia Hileta Zerbitzuak, S.A.
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián, S.A.
Polloe plaza, 2 | Tel. 943483540 | polloe@donostia.eus | www.polloe.eus
20012 Donostia / San Sebastián

15. OHARRA BESTELAKO INFORMAZIOA

Ekitaldian batez beste honako langile hauek egon dira:

	2024		2023	
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
- Kudeatzailea	-	1	-	1
- Administrariak	3,4	-	3,25	0,25
- Errausketa-labea	-	1	-	1
- Hilerriko arduraduna	-	1	-	1
- Langileak	0,2	0,6	-	0,5
- Ehorzleak	-	6,36	-	5,2
GUZTIRA	3,60	9,96	3,25	8,95

Administratzaileek ez dute inolako ordainsaririk jasotzen Sozietatetik.

Ez dago Administratzaileen edo Goi-Zuzendaritzako kideen aldeko aurrerakinik, krediturik edo pentsio-betebeharrik.

Jasotako dirulaguntzak Donostiako Udalaren 50.722,55 eurokoak dira.

Administratzaileek ez dute aurkitu, ez beren izenean, ez haiekin lotutako pertsonen jardueragatik, Kapital Sozietateei buruzko Legearen Testu Bateginaren 228. artikulutik 231.era aipatzen diren Sozietatearen interes-gatazkako egoeretako ezeinetan (Gobernu Korporatiboa Hobetzeko abenduaren 3ko 31/2014 Legeak aldatu zuen testu bategin hori).

1. oharrean adierazten den bezala, Sozietatearen kapital osoa Donostiako Udalarena da. Hori dela eta, Sozietatean ez dago Goi-Zuzendaritzakotzat har daitekeen langilerik, enpresako arloetan erantzukizuna duten pertsonen bazkide bakarrak izendatutako administratzaileek emandako jarraibideak betetzen baitituzte.

2024ko eta 2023ko ekitaldietako ikuskaritzei dagokien ordainsaria 5.120,00 eta 2.950,00 eurokoa izan da, hurrenez hurren.



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Donostia Hileta Zerbitzuak, S.A.
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián, S.A.
Polloe plaza, 2 | Tel. 943483540 | polloe@donostia.eus | www.polloe.eus
20012 Donostia / San Sebastián

16. OHARRA HORNITZAILEEI EGINDAKO ORDAINKETEN EPEEN BURUZKO INFORMAZIOA

Sozietateak hornitzaileei ordaintzeko egiten dituen epeek bete egiten dituzte merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurka borrokatzeko 3/2004 Legea aldatzen duen uztailaren 5eko 15/2010 Legean ezarritako mugak.

Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea, 15/2010 Legean aurreikusitakoa, honako hau da, eta 2016ko otsailaren 4an argitaratutako Estatuko Aldizkari Ofizialaren xedapenaren arabera, honela zehazten da:

	2024	2023
	Egunak	Egunak
Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldia	19,76	22,00



**DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN**

- Donostia Hileta Zerbitzuak, S.A.
Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián, S.A.
Polloe plaza, 2 | Tel. 943483540 | polloe@donostia.eus | www.polloe.eus
20012 Donostia / San Sebastián

DONOSTIA HILETA ZERBITZUAK, S.A.ko Administrazioaileek erantsitako 2024ko ekitaldiko urteko kontu laburtuak egin dituzte.

Era berean, dokumentu hau sinatu dute, eta erantsitako urteko kontuen parte da.

Izp.: Eneko Goia Laso Jna.
Lehendakaria

Izp.: Carlos García Hernández Jna.
Lehendakariordea

Izp.: Miren Nekane Mendarte Azcue And.
Batzordekidea

Sinadurarik ez mediku bajagatik

Izp.: Juan Ramón Viles Mitxelena Jna.
Batzordekidea

Izp.: David de Miguel Les Jna.
Batzordekidea

Izp.: Ricardo Burutarán Ferré Jna.
Batzordekidea

Izp.: Itziar Iturri Arrazola Jna.
Batzordekidea

Izp.: Jorge Mota Iglesias Jna.
Batzordekidea

Izp.: Arantza González García And.
Batzordekidea

Donostian, 2025eko martxoaren 31n.